

HIZKUNTZEN ERABILERA NEURKETA EREMU INFORMAZIOAN



**2023ko ekaineko datuak eta
2022ko urriko datuekin alderaketa**

EMAITZEN ADIERAZGARRITASUNA

Unibertsoa: Kurutziaga ikastolako eremu informaletan (sarrera-irteerak eta jolasaldiak) entzun daitezkeen ikasleen arteko elkarriztak.

Lagina: behatu diren **990 elkarrizketek** eta horietan solaskide izan diren **3160 solaskidek** osatu dute lagina.

Aztertu den ikasle-kopurua (968 ikasle HH3tik DBH4ra) baino lagin handiagoa jaso da (3160 solaskide), kontuan hartu behar da solaskide bera behin baino gehiagotan behatua izan daitekeela.


Akats-tartea: +/- %3,11koa da elkarrizketetan lagin osoarentzat, % 95,0ko konfiantza mailan.¹

Laginarten osaketa sexuaren arabera

	HH	%	LH	%	DBH	%
Neskak	624	53,42	654	49,70	217	36,66
Mutilak	544	46,58	662	50,30	375	63,34
Guztira	1168	100	1316	100	592	100

¹ Erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria. Akats-tartea kalkulatzeko, bi datu erabili dira: neurketan behatutako elkarrizketa-kopurua eta udalerriko ezagutza-datuak (hiztunak eta elebidunen proportzioa). Ikus "Laginaren kalkulurako tresna": <https://soziolinguistika.eus/eu/lagina/>


Laginararen osaketa sexuaren arabera



Laginarren osaketa adinaren arabera


Aztertutako lagina guztira etapaka:		%
HH	1168	36,96%
LH	1474	46,65%
DBH	518	16,39%
Guztira	3160	100,00%

Aztertutako lagina guztira etapaka




Behatutako elkarrizketak		%
HH	434	43,84%
LH	404	40,81%
DBH	152	15,35%
Guztira	990	100,00%

Behatutako elkarrizketak %tan



Behatutako populazioa guztira		%
HH	210	21,69%
LH	451	46,59%
DBH	307	31,71%
Guztira	968	100,00%




DBHko ikasle gutxiago behatu dira proportzionalki, ikastolan orotara direnak baino (%17 lagina, %31 populazioa). Beste bi etapetan behatutako lagina eta populazioaren arteko proportzionaltasunak hurbilago daude (HH %37 lagina, %21 populazioa; LHren kasuan populazioa eta lagina parekoak dira %46).

HIZKUNTZEN ERABILERA

Datu orokorra (2023ko ekaina)

Kurutziaga ikastolako eremu informaletan, behatutako ikasleen hiru laurdenak euskarazko elkarrizketetan ari ziren (zehazki, %75,88). Gainerakoak gaztelaniazko elkarrizketetan (zehazki %24,12).


Hizkuntzen erabilera KURUTZIAGA IKASTOLAKO ikasleen artean



HIZKUNTZEN ERABILERA, HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERA


Erabilera, sexuaren arabera

	Euskaraz	%	Gaztelaniaz	%
Neskak	1311	87,69%	184	12,31%
Mutilak	1023	64,71%	558	35,29%



Bi taldeen artean ia 23 puntuko aldea dago, nesken artean euskara gehiago erabiltzen da orokorrean modu nabarmenean.

Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera



Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera				
	Euskaraz	%	Gaztelaniaz	%
HH	1012	86,64%	156	13,36%
LH	952	64,59%	522	35,41%
DBH	370	71,42%	148	28,58%

Adinean aurrera egin ahala, euskararen erabilera apaltzen badoa ere, badirudi, DBHn apur bat berreskuratzen dela euskararen erabilera.

DATUAK ETAPAKA


Haur Hezkuntza

Datu orokorra

Haur Hezkuntzako eremu informaletan, behatutako 10 ikasleetatik 8 euskarazko elkarrizketetan ari ziren (zehazki, %81,1). Gainerakoak gaztelaniazko elkarrizketetan (zehazki %18,90).

Euskararen erabilera HHko ikasleen artean		
Euskaraz	1012	86,64%
Gaztelania	156	13,36%


Hizkuntzen erabilera HHko ikasleen artean



Erabilera, sexuaren arabera

Bi taldeen artean ia zortzi puntuko aldea dago, nesken artean euskara gehiago erabiltzen da.

HHko ikasleen hizkuntzen erabilera sexuaren arabera:		Euskaraz	Gaztelaniaz
Neskak	572	91,67%	8,33%
Mutilak	440	80,88%	19,12%




Lehen Hezkuntza

Datu orokorra

Lehen Hezkuntzako eremu informaletan, behatutako 10 ikasleetatik 7 euskarazko elkarrizketetan ari ziren (zehazki, %72,79). Gainerakoak gaztelaniazko elkarrizketetan (zehazki %32,06).

Euskararen erabilera LHko ikasleen artean		
Euskaraz	952	64,59%
Gaztelaniaz	522	35,41%

Hizkuntzen erabilera LHko ikasleen artean




Erabilera, sexuaren arabera

Bi taldeen artean **hogeita hamar puntuko aldea** dago, nesken artean euskara gehiago erabiltzen da modu nabarmenean.

LHko ikasleen euskararen erabilera sexuaren arabera:				
	Euskaraz	%	Gaztelaniaz	%
Neskak	573	87,61%	81	12,38%
Mutilak	379	57,25%	283	42,74%

LHko ikasleen euskararen erabilera sexuaren arabera




LHko ikasleen euskararen erabilera sexuaren arabera:

Erabilera, adinaren arabera

Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera		
	Euskaraz	Gaztelaniaz
1. zikloa	92,60%	7,40%
2. zikloa	65,84%	34,16%
3. zikloa	68,56%	31,44%

Hizkuntzen erabilera adinaren arabera



Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera

Adinean aurrera egin ahala, euskararen erabilera apaltzen badoa ere, 3. zikloan apurtxo bat berreskuratzen dela dirudi.


Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Datu orokorra

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eremu informaletan, behatutako 10 ikasleetatik 7 euskarazko elkarrizketetan ari ziren (zehazki, %71,4). Gainerakoak gaztelaniazko elkarrizketetan (zehazki %28,6).

Euskararen erabilera DBHko ikasleen artean		
Euskaraz	370	71,42%
Gaztelaniaz	148	28,58%

Hizkuntzen erabilera DBHko ikasleen artean




Erabilera, sexuaren arabera

Bi taldeen artean **hogei puntutik gorako aldea** dago, nesken artean euskara gehiago erabiltzen da. Mutilen artean, erdia baino apur bat gehiago dira euskaraz ematen diren elkarrizketak.

	Euskaraz	%	Gaztelaniaz	%
Neskak	166	76,49%	51	23,51%
Mutilak	204	54,40%	171	45,60%


Hizkuntzen erabilera sexuaren arabera



Erabilera, adinaren arabera

Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera				
	Euskaraz	%	Gaztelaniaz	%
1. zikloa	115	58,08%	83	41,92%
2. zikloa	255	49,92%	139	50,08%

Hizkuntzen erabilera adinaren arabera DBHn



Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera

Zikloen arteko aldea handia ez bada ere, euskararen erabilera jaitsi egiten da adinean aurrera.

2022/2023 ikasturteko hizkuntzen erabileraren neurketen konparazioa


Ikasturteko lehen neurketa urrian egin genuen, eta bigarrena, ekainean. Bi neurketetan poblazio bera behatu bada ere, aztertutako laginaren tamaina aldatu da. Ekaineko neurketan lagina txikiagoa da eta ondorioz, populazioa ere bai. Hala ere, bietan aztertu den ikasle-kopurua (968 ikasle HH3tik DBH4ra) baino lagin handiagoa jaso da, beraz, neurketok esanguratasun nahikoa badutela esan daiteke.

2022ko urriko neurketa


2023ko ekaineko neurketa

Aztertutako lagina guztira etapaka

Aztertutako lagina guztira etapaka




Aztertutako lagina guztira etapaka




Behatutako elkarrizketak %tan


Behatutako elkarrizketak %tan



Behatutako elkarrizketak %tan



Bi neurketetan behatu den populazioa ehunekotan




Neurketa bietan, **DBHko ikasle gutxiago** behatu dira proportzionalki, ikastolan orotara direnak baino (%16 lagina, %31 populazioa). Beste bi etapetan behatutako lagina eta populazioaren arteko proportzionaltasunak hurbilago egon dira.

HIZKUNTZEN ERABILERA


Datu orokorra (2022ko urria)

Hizkuntzen erabilera KURUTZIAGA IKASTOLAKO ikasleen artean



Datu orokorra (2023ko ekaina)

Hizkuntzen erabilera KURUTZIAGA IKASTOLAKO ikasleen artean




Urritik ekainera euskararen erabilera 7 puntu igo da Kurutziaga ikastolan.

Hizkuntzen erabilera, sexuaren arabera


2022ko urria

Hizkuntzen erabilera, sexuaren arabera



2023ko ekaina

Hizkuntzen erabilera sexuaren arabera




Euskararen erabilera talde bietan igo da, nesken kasuan 10 puntu eta mutilenean 2. Nesken artean gehiago erabiltzen da euskara, modu nahiko nabarmenean.

Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera


2022ko urria

2023ko ekaina

Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera



Hizkuntzen erabilera adinaren arabera



Adinean aurrera, euskararen erabilera beheranzko joera duela argi ikusten den arren, azken neurketek erakusten dute DBHn euskararen erabilera gora egin duela nabarmenki, aztertu beharko genuke zerk eragin ahal izan duen. LHn oster, euskararen erabilera beherakada igarri da urritik ekainera, aurrerago etapako datuetan zehatzago aztertuko da gai hau.

ETAPAZ ETAPA

HH


Hizkuntzen erabilera HHko ikasleen artean

2022ko urrian

2023ko ekainean


Hizkuntzen erabilera HHko ikasleen artean

Gaztelania
18,9%





Hizkuntzen erabilera HHko ikasleen artean

Gaztelania
13,4%



Euskararen erabilera 4 puntu igo da HHko ikasleen artean urritik ekainera.

Hizkuntzen erabilera sexuaren arabera HHn



Talde bietan igo da euskararen erabilera urritik ekainera, nesken artean euskararen erabilera handiagoa izaten jarraitzen du.

LH



Hizkuntzen erabilera LHko ikasleen artean

2022ko urrian

2023ko ekainean

Hizkuntzen erabilera LHko ikasleen artean

Hizkuntzen erabilera LHko ikasleen artean




Beste bi etapetan ez bezala, LHn euskararen erabilera behera egin du ia 5 puntutan urritik ekainera.

Hizkuntzen erabilera sexuaren arabera LHn


2022ko urria

2023ko ekaina

Hizkuntzen erabilera, sexuaren arabera



LHko ikasleen euskararen erabilera sexuaren arabera




LHko nesken artean, igo egin da euskararen erabilera, mutilen artean aldiz, jaitsi egin da.

Hizkuntzen erabilera adinaren arabera LHn


2022ko urria

2023ko ekaina

Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera





Hizkuntzen erabilera adinaren arabera



Grafika hauek erakusten dute beherakada LHko 2. zikloan eman dela bereziki. Gainontzeko zikloetan 8 puntuko igoera izan du euskararen erabilerak, datu hau arretaz aztertzea izan daiteke: zerk eragiten du beherakada hau?

LH 2. zikloan gertatutakoa argitzen laguntzeko, ziklo horretako datuak sexuaren arabera konparatu ditugu:



Grafika hauek argi adierazten dute ziklo honetan emandako beherakada mutilen artean eman dela, zikloan eta etapan aztertzeko moduko infirmazioa da hau beharrezkoak diren esku-hartzeak diseinatzeko.

DBH



Hizkuntzen erabilera DBHko ikasleen artean

2022ko urrian

2023ko ekainean

Hizkuntzen erabilera DBHko ikasleen artean

Hizkuntzen erabilera DBHo ikasleen artean




Igoera nabarmena izan du euskararen erabilerak DBHn urritik hona, ia 30 puntu igo da. Aztertzeko datua hauxe ere, zerk eragin du?
Non asmatu dugu?

Hizkuntzen erabilera sexuaren arabera LHn


2022ko urria

2023ko ekaina

Hizkuntzen erabilera, sexuaren arabera



Hizkuntzen erabilera sexuaren arabera




Talde bietan igo da euskararen erabilera 20 puntutik gora, nabarmentzekoak dira igoera biak. Nesken artean erabilera handiagoa da, 20 puntuko aldea dago talde baten eta besteen artean.

Hizkuntzen erabilera adinaren arabera DBHn


2022ko urria

2023ko ekaina

Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera



Hizkuntzen erabilera adinaren arabera DBHn



Urritik ekainera DBHko 1. zikloko ikasleen artean euskararen erabilera 26 puntu igo da, datu esanguratsua. 2. zikloan ostera, apurtxo bat apaldu da, ezer esanguratsurik ez.

